



BALIOZKO PROPOSAMENA

BAKARRIK EZ BATERA BAI!

Euskal Herriko, 4 emakumez osatutako talde bat gara eta gure inguruan nabarmena den arazo bati erantzuna bilatu diogu. Behin, gure artean hitz egiten ari ginela, ohartu ginen, gure inguruko pertsona askok ez zutela ausardiarik planak bakarrik egiteko. Arazo horri aurre egiteko, gure enpresa sortu dugu. Gure helburua, herrian hainbat ekintza antolatzea da, honela, jendeak ekintza horiek bakarka egin beharrean, herritarren artean elkarrekin egingo dituzte.

Gure proiektuarekin ez dugu plan ezberdinak bakarrik egitea arazo bat denik transmititu nahi, justu kontrakoa delako. Hau da, ekintzak bakarrik egiteko gaitasuna edukitzea alderdi oso baikorra dela uste dugu. Hala ere, gure bailaran gazte askok ez dute gaitasun hori, eta horregatik sortu dugu gure enpresa.


Gure enpresak Aiztondo bailararen inguruan kokatzen diren herrietan lan egingo du, hau da, Villabona, Zizurkil, Amasa, Asteasu...

Gure enpresan hainbat **ekintza** egingo dira:

- Mendira joatea
- Zinemara joatea
- Udalekuak
- Hainbat kontzertu ekarri edo batzuetara joateako aukera
- Hainbat ibilaldi

Gure ekintzak astebururo izango dira, eta, oro har, igande goizetan egingo ditugu. Kontzertuek, ordea, salbuespen bat izango dute. Hau da, haien ordutegia eta eguna abeslariaren edo taldearen erabilgarritasunaren arabera zehaztuko da.

Gure merkatu ikerketa egiteko, inkesta bat egin dugu, bakardadearekin zerikusia duten galderak dituenak. Gure lagina 102 pertsonakoa da eta hainbat galdera egin ditugu:




Egindako galderetako bat, **noizbait bakarrik sentitu diren** da.

Galdera honetatik atera dugun ondoria, laginaren %67,6a noizbait bakarrik sentitu dela onartu duela izan da, eta, aldiz, %32,4 ez da inoiz bakarrik sentitu. Datu horrekin ondoriozta dezakegu laginaren gehiengoa noizbait bakarrik sentitu dela.

Jarraitzeko beste galdera bat bota dugu; **beldurra ematen dien ekintzak bakarrik egitea** ala ez.

Ondorio hau atera dugu; laginaren erdiari baino gehiagori ekintzak bakarrik egitea ez die beldurrik ematen. Hala ere, laurdenak baino gutxi bat gehiagok baietz bozkatu dute; hau honela izanik, 102 pertsonetatik 27ri beldurra ematen die bakarrik planak egitea, gutxi dirudien arren, asko da.



Aurreko galderarekin jarraituz, **bakarrik joaten diren galdetu dugu**.

Hau izan da beraien erantzuna; erdiak baietz esan du eta beste erdiak ezetz. Baina aurreko galderaren erantzuna kontuan hartuta, nahiz eta, jende askok beldurrik ez duen, ez da mendira joaten. Horrek adierazi nahi du, beldurrik ez eman arren, ez direla ekintza horiek bakarrik egitera ausartzen.

Galdetegi oso ikusi nahi izan ezkerro eta planteatu dizkiegun beste galderak ikusteko, hemen sakatu → [GALDETEGI OSOA](#)



Gure enpresa, edozein pertsonarentzat pentsatua dago, **inklusioa** bultzatzeko, eta, era berean, egoera desberdinez jabetzeko. Horrez gain, genero **desberdintasunak**, bazterketak eta tratatu txarrak ez dira inola ere onartuak egongo. Jokabide horiek, bereziki, zigortuak izango dira.

Hau honela izanik, gure artean jarrera egokiak bultzatuko ditugu, **justizia** eta **bakea** egon daitezen.





Lehen aipatu bezala, proposatu ditugun ekintzak, honako hauek dira: mendira, zinemara, gustuko duten abeslarien kontzertu desberdinetara joatea... Irteera hauetan **kontsumo arduratsua**, birziklatzea eta horrelako jarrerak bultzatuko dira. Halaber, irteera hauetan zehar, hamaiketakoa banatuko dugu.

Jarraitzeko, argi dago plan desberdin asko daudela, eta horietako askok kirola inplikatzeko dutela. Gainera, hamaiketakoetan fruta pieza desberdinak banatuko ditugu, horrela, gure **osasuna zaintzearen** garrantziaz jabetu gaitezten.



Mendira joaten garenean, fauna eta flora desberdinez gozatuko dugu, eta honen bidez, jende askok nabaritu du nola herritik aldentzen goazen heinean, egitura bitxi desberdinak agertzen diren. Beraz, lehorreko ekosistemako bizitzari garrantzia emango diogu modu honen bidez.

Bestalde, egia esan, ez dugu konpetentzia handirik nabarmen, hala ere, desberdingarri den zerbait bilatzen ari gara. Gure enpresa berriki ireki dugu eta oraindik aldaketak jasotzen ari da. Egindako azkeneko aldaketa, helburu jasagarriak sartzea izan da. Baina gustatuko litzaiguke merchandising-az gain beste zerbait berria sortzea. Adibidez, buruan bueltaka dabilkigun ideia bat irekiera osatzeko **ekitaldi** bat egitea da, bertan ekintza desberdinak egiten dirua irabazi dezakegunak. Eta ekitaldi horrekin gure burua ezagutaraztera emango dugu forma pertsonalean. Honela gure enpresa jende desberdinen begietara eramango dugu.

Gure historia eta helburuak azaldu ondoren, gure enpresa aurrera eramateko, **urrats** hauek emango ditugu:

Lehenik, gure enpresaren bazkide izateko, hiru hilabetero 20€-ko kuota ordaindu beharko dute, eta ekintzetan parte hartzeko, jardueraren arabera prezioa aldatzen joango da. Hau guztia gure web orrian egin beharko dute. Gainera, izen ematea beti irekita egongo da, hau da, urtean zehar bazkide bihurtzeko aukera izango dute. Hala ere, bazkide ez direnek, ekintza solteetan parte hartzeko aukera izango dute, betiere, bazkideak direnak baino prezio handiagoa ordainduz, hau da, ekintzaren prezio osotasunean ordaindu beharko dute.



WhatsApp aplikazioaren bidez talde bat sortu dugu, bertan bazkide guztiak sartuko ditugu, eta talde horretan informazioa eta eguneratzeak partekatuko ditugu. Ekintzei buruzko berri guztiak jasoko dituzte talde horren bidez, baita informazio garrantzitsua. Horrela, bazkideek beti izango dute eguneratutako informazioa eskura, eta elkarrekin komunikatzea errazagoa da.

Bestetik, aurretik esan bezala, gure enpresari hasiera emateko ekitaldi bat prestatzea erabaki dugu. **Ekitaldi** horretan, gure burua aurkeztu, gure merchandising-a (kamisetak, motxilak, biserak...) erosteko aukera eduki eta joko desberdinetan parte hartzeko aukera edukiko dute. Egia da, merchandising-a erosteko aukera beti edukiko dutela gure web-orriaren bitartez. Ekitaldi horren helburua, gure bazkideak beraien artean ezagutzeaz gain, etekin ekonomikoa atertzzea da.

Ekitaldiaren hasieran, **aurkezpen bat egingo dugu**, bertan enpresaren helburua eta xehetasunak azalduko dira. Bestetik, babarrunaren eta gaztaren jokoak planteatuko ditugu. Babarrunaren jokoak, poto baten barruan zenbat babarrun ale dauden asmatzean datza, parte hartzeagatik euro bat kobratuko diegu. Gaztaren jokoak, berriz, berdina da, baina pisuarekin. Gure helburua giro alaitsu bat lortzea da, musika desberdinen bitartez, esaterako. Ekitaldi hau herrian bertan egingo da, mezua herrian zehar zabaldu dadin.

Gainera, **udalekuak antolatzea erabaki dugu**, uztailaren lehenengo astean izango direnak. Horrela, abuztua oporretarako erabil dezakegu, eta, aldi berean, udaleku hauek guretzat irabazi ekonomikoak sortzeko aukera emango digute. Jarduera honen bidez, ez dugu soilik gure proiektuak finantzatzeko helburuarekin egin; inguruko haur eta gazteei ongi pasatzeko, lagunak egiteko eta esperientzia aberasgarriak bizitzeko aukera eskaintzeko helburuarekin egin dugu. Izan ere, gure etekin ekonomikoak handitzeko asmoz, udalekuak urtean bi aldiz egitea pentsatu dugu, beraz, Aste Santuan bi txanda antolatuko dira.

Astean zehar, hainbat **hitzaldi** egingo ditugu **eskoletan**. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu eskoletan informazio egokia eskaintzea, bai haurrentzako zein nerabeentzat, horrela gure enpresa ezagutzera eramango dugu eta bakardadearen garrantzia azalduko dugu. Esperientzia gutxi dugunez, 200€ ordainduko ditugu hitzaldiko.

Gure enpresa **herritarren onura bermatzeko** bideratuta dagoenez, udaletxeak **diru laguntzak** ematen dizkigu. Elkarre txiki bat garenez, udaletxeak ekintzaren baitan diru kantitate bat edo beste ematen digu, baina beti 300€ eta 3000€ artean. Hau da, diru kopurua handiago emango digute kontzertu bat antolatzen badugu, mendi ibilaldi bat egiten badugu baino.